

## LAVIEUXVILLE-HAROSTEGUY-REN KATIXIMA AURKEZTEAN

*Gasteizen, 1985, Irailak 13*

*Fr. Luis Villasante*

Jaun-Andreak:

Gasteizko Udalaren laguntzari esker, bir-argitaratu ahal izan dut euskal literaturaren liburu zahar bat, txit estimagarria ene ustez, baina gaur-egun aurkitzen oso zaila zena. Liburu hori hemen zeuen aurrean duzue, hots, *Bayonaco Diocesaco Bigarren Catichima*, Lavieuxville apezpikuaren izenaz ezagutua dena.

Euskaltzaindiak badu “Euskararen Lekukoak” deitzen den liburu sorta. Bertan edizio gaurkotuetan eta oharreztatuetan bir-argitaratzen dira euskararen iturri eta testigu bezala aparteko balioa duten eta gaur aurkitzen zailak diren liburuak. Edozeinek ikus dezake zer-nolako mesedea egin diezaguketen honelako edizioek euskara sustraitik aztertu eta hobekiago ezagutu eta menderatzeko.

Liburu berri hau ere sorta horren barnean irten da, beraz, eta sorta hori aberastera eta ugaltzera dator.

Eta, esan dudanez, Gasteizko Udala izan da bere diru laguntzaz argitaratzeko ahalbidea eman didana. Bestela, laguntza gabe, kultur ekintza hauek aurrera eramaterik ez dago.

Gaur, bada, liburu berri honen plazaratzea ospatzen delarik, Gasteizko Udari neure eskerrona bihotz-bihotzez agertu nahi diot.

Hitzalditxo honetan, laburzki baino izango ez bada ere, honako hiru puntu hauek azalduko ditut:

1. Zergatik eta zertarako edizio hauek.
2. Euskarazko kristau dotrina zaharrek gure mintzaira hobeki ezagutzeko eman diezaguketen laguntza.
3. Gaur kaleratzen den liburua zer-nolakoa den.

Euskararen batasuna egin nahirik gabiltzan une honetan ere, itsu-itsuan ibili nahi ez badugu, beharrezko zaigu hizkuntzaren ezagupen bat ahalik eta erabatekoena, zabalena eta zehatzena eskuratzea, bai iraganekoa eta bai gaurkoa, euskalkiz euskalki, gizaldiz gizaldi, etab. Hizkuntza bizia ere bai, noski, baina hizkuntza idatziaren lekukoetara jotzea ere noraezoko da.

Are eta beharrago zaigu hori, gure artean maiz iraultzak, etenak eta mutur batetik bestera jotzeak egon direla jakinik. Bai. Askotan gure artean azken gizaldiak aurrekoaren berri ez du jakin nahi izan, eta hala, dena aurrekoak ez bezala egiten, hutsetik jotzea eraikitzen hasi da, aurrekoek ezer onik egin ez balute bezala. Horrela jokatu zer gertatuko den esan beharrik ez dago: elkarren berri ez dakigula.

Gure aurretik euskararen arrangura izan zutenen lana eta utzi ziguten emaitza ez badugu aintzakotzat hartzen, haiek egindakoa guretzat egin ez balitz bezala da. Bide txarra da hori, inondik ere. Horrela gabiltzan bitartean, doi-doi egin daiteke deus iraunkorrik euskal kulturaren etxegintzan. Badirudi, erdia alfer-lana gerta ez dakigun, segida bat eta halako lotura bat behar dela, bai mende eta bai eskualdeen artean ere.

Horregatik, hain zuzen, ongi etorriak zaizkigu joan mendeetako euskal liburu- en bir-argitarapenak. Guztiok dakigu gaur aurkitzen zailak direla liburu horiek. Eta oraingo edizio fidagarri eta behar bezala oharreztatuetan ematen zaizkigunean, mesede handia egin diezagukete euskara sustraitik ezagutzeko.

Asmo honekintxe erabaki zuen Euskaltzaindiak “Euskararen Lekukoak” bilduma hau sortzea. Honekin ez dut esan nahi Euskaltzaindiaz kanpo beste inor hortaz arduratu ez denik. Hor daude besteen lanak ere: “Hordago”, “Auspoa”, “Kuliska”, “Jakin”, “Lur”, “Gero”, “Etor”...

Dena dela, eta bestek egiten duen lanari deus kendu gabe, gure asmoa, bilduma hau sortzean, hauxe zen: joan mendeetako gure literaturaren lekukoak edizio fidagarrietan eta behar bezala oharreztatuetan gure gaurko idazle, irakasle eta ikerlarien eskuetan jartzea.

Zazpi urte da bilduma hau sortu zela, eta 11 dira orduzkeroztik irteerako liburua. Ez da asko. Baina bada zerbait. Nik uste dut ugaritzen eta tarrotzen den ber, bilduma hau —Lekukoen bilduma, alegia— guztiz preziatua eta ezin utzizkoa bilakatuko dela euskararen ikerketarako.

\* \* \*

Gaur aurkezten dugun liburua katekesi-sailekoa denez geroz, ez da gaizki egongo literatur-mota honek euskal munduan izan duen kopuru, mordo eta garrantziak zerbait esatea. Tamalez, euskarazko kristau dotrinei buruz badira, bai, hor-hemen, berriak, baina oso sakabanatuak eta galduak. Joan mendeetan egon diren euskarazko kristau dotrinen albisteen “corpus” bat behar dugula uste dut, non zer den jakiteko gida bat, alegia. Askotan ia bailara bakoitzak kristau dotrina bat harako berariak egina izaten zuten; hori hala izanik, begien bistan dago horien ezagutzeak asko lagun gaitzakeela euskara bere euskalki eta azpi euskalkitan ezagutzeko.

Dotrina horietarik batzuk inprentatu ziren, baina beste batzuk eskuz idatzirik gelditu dira. Aita Añibarrok Iruñeko Ospitalaren aginduz euskal dotrina bat nafar euskaraz egin zuen eta inprentatu ere egin zen, baina gero, legezko baimena ez zuelako edo, ez zen zabaldu.

Oker ez banaiz, Sancius de Elsoarena izango da euskarazko dotrinetan zaharrena; Lizarran —hau da, Estellan— inprentatu zen 1561. urtean, euskaraz eta erdaraz, baina zoritxarrez gaur ez da ezagutzen beronen alerik. Inoiz entzun izan dut hor nunbaiten badela bat; gero gezurtatu ere egin didate; ez dakit. Azalduko balitz, ez litzateke aurkikuntza makala.

Jakin dudanez, J. A. Arana Martija, gure bibliotekari ordea, dabil euskarazko kristau dotrinen “corpus” hori osatu nahian. Lehen esan dudan bezala, mesede ederra egingo liguke honelako lan gidari batek.

Espania aldeko Euskal Herrian uste dut Astete izan dela kristau dotrina gehienen iturburua; Iparraldean, aldiz, beste bide batzuetarik ibili dira.

Zernahi gisaz, kristau dotrinen zerrendan toki aparta merezi du gaur argitaratzen dugun Katixima honek. Toki aparta bere oparotasunaz, bere euskara txukunaz, bere barne muin aberatsaz, euskal literaturaren tradizioan izan duen eraginaz, etab.

Aita Larramendi ondo jabetu zen hortaz. Bere *Diccionario Trilingüe*-ren hitzaurrean, ordura arteko euskal liburuen kontu ematerakoan, hauxe da lehen tokian aipatzen duena. Eta txit laudoriozko aipua egiten dio. Hara hitzez-hitz handik aldatua:

“1.º Dos Cathecismos, uno breve, que contiene solo el Texto, y otro más largo, que contiene la explicación de las quatro partes del Texto: de la primera 26 lecciones: de la segunda 24. de la tercera 33. de la quarta 27. y además muchas prácticas Santas, exemplos, e Historias, que se citan de los Sagrados Libros. Es cosa muy selecta: hizolos imprimir en Bayona el Illustrissimo Señor Don Pedro Guillelmo de Lavieuxville, Obispo de aquella Ciudad, cuya virtud, zelo, y prudencia singular, no puedo alabar bastantemente. Imprimiéronse Año de 1733” (1).

Aita Larramendi, jakina denez, Baionan egona zen Maria Ana de Newburg erregina alargunaren aitorle gisa, eta aski ongi ezagutzen zituen Iparraldeko gauzak.

Nondik edo nola piztu zitzaidan euskal liburu honenganako zalea? Sarreran kontatzen dut hori. 1963. urtean hil zen Aita Aingeru Madariaga, Oñatiko Bidaurretan kapeilau zelarik. Euskaltzalea zen, olerkaria, *Erizkizundi Irukoitzeko* lanean parte hartua, eta urte asko Ameriketara eginga. Artean Aita Aranguren zen Arantzazuko Guardian, eta esan zidan: Zoaz, eta ikus ezazu ea baliozko zeezer utzi ote duen. Eta bai; euskarazko liburu zahar bat aurkitu nuen haren gelan; eskuz, eta bizkaieraz, idatzia. Bazuen, ordea, hitzaurre luze bat erdaraz. Bertan esaten da Iparraldeko dotrina baten itzulpena dela. Iparraldeko dotrina honen balioaz hain txunditua ageri da itzultzailea, non gipuzkerara ere lan bera itzultzeko asmoa agertzen baitu.

Urte asko geroago jakin ahal izan nuen zein zen bizkaierazko dotrina horren iturria, hots, Lavieuxvilleren hau.

(1) *Diccionario Trilingüe*, San Sebastián, 1745; p. XXXIV.

Baita ere jakin ahal izan dut nor izan zen bizkaitar itzultzailea. Derio-n itzulpen honen beste kopia bat dago eta han espresuki dakar itzultzailearen izena: Juan Antonio Mogel.

Nola ezagutu ahal izan zuen Mogelek iparraldeko Dotrina hau? Nik hori ez dakit. Beronen berri Larramendiren Hiztegitik ere jakin zezakeen. Baina gero Erreboluzio handitik ihesi zetozen apaiz eta beste Mogelek etxean hartzen zituela badakigu. Agian ihesi etorritakoren batek dotrina hori berekin ekar eta Mogelek hortik ezagut zezakeen.

Mogelen lan hori argitaragabea delarik, Lekukoetan argitaratzeko asmoa hartu nuen; baina gero pentsatu nuen lan horren sorburua Iparraldeko hau izanik, berau atera behar zela lehenik.

Lavieuxville, Baionako apezpikua, ez zen euskalduna. Hark frantsesez idatzi zuen Katixima. Baina apaiz bati agindu zion euskarara itzultzeko. Eta gero, bai euskaraz eta bai frantsesez inprima arazi zituen.

Nor izan zen frantsesezko testua Lapurdiko euskarara itzuli zuena? Itxuren arabera Gratien Harosteguy, orduan Sara-n erretore zegoena. Hala uste dute behintzat hortaz arduratu direnak: Haristoy, Jon Bilbao, Lafitte-k. Horregatik, argitarapen berriaren buruan izen bikoitza jarri dugu: Lavieuxville-Harosteguy, euskal itzultzaileari ere toki bat eman nahirik. Katiximan ageri den euskara guztiz ona eta ederra dela aho batez diote kritikalariek. “On croit qu’il est le traducteur du Grand Catéchisme de La Vieuxville, rendu en très beau basque de Sare” (Haristoy) (2).

Aitortu behar dut frantsesezko orijinala ezin izan dudala ikusi, nahiz eta ahalegin batzuk egin ditudan hortarako; bakar-bakarrik, E. Knörr jaunari eskerrak, Lavieuxvilleren katixima ttipiaren frantsesezko testua ezagutu ahal izan dut eta horren agerbide bat argitarapen honetan dator.

\* \* \*

Liburu hau, edo, hobeki esan, Lavieuxvilleren katixima biak —ttipia eta handia— indarrean egon ziren Baionako elizbarruti guztian ia ehun urtez. Eta bada beste xehetasun bat pisu handikoa dena: ez zen zilegi, hauetaz kanpo, beste katiximarik irakastea. Azalean bertan hori garbiki adierazten da: “haren diozesan hau xoilki irakasteko”.

Garai hartan Baionako diozesak bazterrak orain baino laburragoak zituela uste dut, baina orduan ere euskararen aldetik bazen han euskalki bat baino gehiago: lapurdieraz mintzo ziren batzuk eta benafarreraz beste batzuk; halere, katekesirako erabiltzen zen testu bakarra lapurdierazko hau zen. Katixima honen aurreko orrietan (ikus 5.z.) abisatzen zaie eskola-Nausiei haurrak irakurtzen ikasteko Katixima hau erabil dezatela.

Hemengo aldean Katiximak tokian tokiko euskararen arabera eginak egoten ziren. Han, berriz, esan dugunez, bat bera irakasten zen elizbarrutiko eremu

(2) Ilus Lafitteren artikulua “Pierre-Guillaume de la Vieuxville (1682-1734)”. *Euskera* (1982), 619-620.

osoan, eta horrek bere eragina izan zuen, dudarik gabe, euskara idatziaren batasunerako.

Aintzin honetan esan dugu ia ehun urtez egon zela Katixima hau indarrean; neur dezagun, ordea, zehazkiago puntu hau. Lavieuxvilleren Katiximak 1733. urtean argitaratzen dira (ttipia, agian, aurreko urtean). Gero, berriz, Iraultza handiaren ondoren, Napoleon Enperadoreak Katixima berria eta bakarra ezar arazten du berak agintzen zuen eremu guztietarako. Katixima berri hau Baionan ere J. J. Loison apezpiku zelarik euskarara itzulia 1807. urtean agertzen da. Baina ez zuen asko iraun. Waterloo-ko hondamendia gertatu bezain laster, zokoratua izaten da eta berriz Lavieuxvillerena hartzen dute; baina oraingoan ez luzarorako. Kontuan eduki behar da Napoleonek egindako aldakuntzen ondorioz Baionako elizbarrutiak orain Euskal Herriko Iparralde guztia besarkatzen duela, eta Astros apezpikuak 1824. urtean elizbarruti guztirako katixima berria egin arazten du. Beraz, urte honetan erretiratzen da Lavieuxvilleren testua 84 urte guti gorabehera indarrean egon ondoren.

Edukinaren aldetik liburuak oso oparoa eta aberatsa da. Azalean bertan esaten du lehenbiziko komunioea egitera preparatzen diren haurrentzat dela egina. Barneko orrietan (ikus 2.z.), berriz, lehenbiziko katixima haur xumeentzat eta bigarrena adin gehiago dutenentzat dela dio. Galdetu nion Lafitte jaunari hori nola zitekeen eta argitasun hau eman zidan: denbora haietan lehen jaunartzea 14/15 urterekin egiten zutela. Bestela nekez konprenitzen da nola haur ttipiek hainbeste gauza buruan sar zezaketen.

Pedagogi aldetik ere, katekesia egiteko moldeari buruz xehetasun jakingarriak datoz aurreko orrietan (Ikus Abisuak, 6-9 z.).

Lau partetan dago banatua Katixima. Lehenbiziko partean girstinotasuneko egiak. Bigarrean girstinotasuneko eginbideak. Hirugarrean eginbide horiek ongi egiteko ditugun bide edo moianez (hau da, sakramentuak eta otoitza). Laugarren parte, berriz, urteko festaburu eta liturgi aroei eskainia dago. Uste dut parte hau berria edo hemengo katiximetan ageri ez dena dela.

“Leccione” bakoitza, berriz, hiru zatitan egon ohi da banatua: lehenik galde-erantzunak; bigarrenik, Pratikak, hau da, kristau bizitzerako kontseilu batzuk, ikasgai hartan ikasi denetik eratorriak; eta azkenik, Istorioak: hemen, lezioan irakatsi dena argitzeko edo sendotzeko balio ditzaketen Eskritura Sainduko pasarteak aipatzen dira.

\* \* \*

Liburuak ez dira ateratzen, gehienetan behintzat, arrazoi jakin batek egilea hartaratzen ez badu. Lavieuxville jauna Baionako elizako artzain izatera etorri zenean, aurki konturatu zen hango egoeraz, eta zerbait egin behar zuela ikusi zuen. Alde batetik, jakinez handia zegoen herrian kristauak jakin behar dituen gauzen gainean. Eta, bestetik, apezteria, hots, eliz gizonak edo horietarik asko, jansenismoz kutsatuak zeuden.

Eta beste neurri batzuen artean, bi katixima, bat ttipia eta bestea handia, egitea erabaki zuen, eta biok euskarara itzul arazi zituen.

Jansenismoari buruz maiz-sarri ideia oso azalekoak edo sinpleak izaten ditugula uste dut. Iruditzen zaigu laztasuna edo gogortasuna erakusten duen erlijio-mota bat dela; baina hori bakarrik balitz, katixima hau ere jansenistatzaletzat jo beharko genuke, eta, haatik, jansenisten kontra zebilen. Jansenismoa teologiko-sistema trinko bat da. Eta Baionan sistema honek halako arrakasta bat izan zuela konprenitzeko, ez da ahantzi behar Saint-Cyran baionesa zela. Aita De Lubac-ek esan duenez, Jansenioaren sistema, Saint-Cyranengatik izan ez balitz, teologo guti batzuen aretoetarik kanpo ez zen irtengo; mundu zabalean sarrera izan bazuen, Saint-Cyranen zor dio (3).

Egitez eta gertatuz, jansenistek, duin ez garelako aitzakiaz, jendea elizatik eta sakramentuatarik uxatzen zuten. Horrela barne-hustutze bat gertatu zen kristau herrian eta geroagoko deskristautzeari bidea paratu zioten.

Baina gatozen geure katiximara. Hau ez da halako ur sakonetan sartzen. Jansenistak eta beste ez ditu behin ere beren izenez izendatzen; hala ere, oharren pixka batekin liburua irakurtzen badugu, ikusiko dugu ematen duela, hor-hemen, orduan eztabaidatzen ziren gauzen gainean dotrina zuzena. Hala esango dizu 29. zenbakian Jainkoak graziazko egoera ez ziola gizonari zor. Hau Baiok zioenaren kontra doa. Eta zenbaki berean dator beste hau ere:

“*Galdea*. Ezta beraz eguia erraitea, guñona eztela libro gaizqui eguiteco baicic, eta eztela guehiago libro ungui eguiteco?”

*Ihardestea*. Ez, hori da proposicione bat Eliçaz condenatua.”

Jakina denez, jansenisten aburuak bide hortatik zihoazen.

Baita kristau ohitura askoren zuzena eta aspalditasuna ere espresuki eta askotan baieztatzen ditu; segur-aski ohitura horiek kentzeko lehiak egiten zirelako. Aita Sainduak fedezko gauzetan duen autoritatea txit azpimarratzen du, Ama Birjinaganako debozioa ere txit goratzen, etab. Kontuan eduki behar da Frantziako eliz giroan horrelako gauzak lazki eztabaidatzen zirela orduan. Quesnel-en aburuak Aita Sainduak “Unigenitus” buldaren bidez gaitzetsi zituen 1713. urtean, baina gaitzespen horrek “kontestazio” bortitza izan zuen. Beraz, giro oso nahasia eta uherra zegoen. Eta gure Katixima eztabaidatuak ziren puntu askori buruz dotrina zuzena eskaintzen saiatzen da, halako espantu gabe, noski. Begira, adibidez, 134. zenbakian datorren beste galde-erantzun hau ere:

“G. Cer erran daiteque comunione saindura humilitatez edo beldurtasunez bakan baicic hurbilcera menturatzen ezdirenez?”

I. Hec haguitz hobequi eguin leçaquetela maizago harat hurbilcen badire Jesu-Christoren ganateco amodioz”.

Lavieuxville jauna ez zen luzaz egon bere karguan. 1734. urtean hil zen; beraz, Katixima hau atera eta hurrengo urtean. Baina haren obrak, bai, luzaz iraun zuen.

Eta ez da Katixima hau urte horien inguruan Lapurdiko aldean egin zen euskal lan bakarra. Haraneder eta beste lankide batzuek itzulitako Testamentu

---

(3) HENRI DE LUBAC, *Augustinisme et théologie moderne*, Aubier, p. 53.

Berriaren esku izkribuak urte muga hau dakar: 1740. Lafitte zenaren liburutegian zen esku izkribu hau eta uste dugu noizbait Lekukoak bilduman ikusiko duela beronek ere argia.

Batzuk kezu dira batasun arazoetan ez ote garen Iparraldeari sobera atxikiak; baina kontura gaitezen gauza batez: hemen baino 200 urte lehenago hasi zirela han euskaraz idazten —hats luzeko obrak idazten, esan nahi dut—, eta hori ez da ondorio gabe. Hala ikusten dugu idatzizko zereginetarako behar den tresna hori, hizkera normalizatu hori, neurri handi batean moldatua eta burutua ageri dela gure Katiximan. Hegoaldean, berriz, garai hartan ez zen holakorik.

\* \* \*

Bukatzeko, eman dezadan gure argitarapen honen berri laburra.

Lehen urratsa Urquijoren liburutegiko alea hartu, serokopiatu eta makinatzea izan zen.

Gure asmoa izan da liburua den bezala eta deusik aldatu gabe argitaratzea.

Galde lezake zenbaitek: Zergatik hola? Zergatik ez da ipini gaurko ortografia, Lapeyrenen edizioaz egin zen bezala? Baina Lapeyrenen liburua askoz hurbilago dago gugandik eta ortografia gaurkotzeak ez zuen halako katramila handirik sortzen. Hemen gauzak ez ziren berdin. Esate baterako, ixa letraz adierazten du Katixima honek guk “ts” multzoaz adierazten dugun fonema; baina ez beti, halere; “ts” multzoa ere erabiltzen du noiztenka eta fonema berbera adierazteko, gainera; “ch” multzoak ere ez du Lavieuxvillegan beti balio berdina; batzuetan ixa-ren balioa du eta beste batzuetan, hots, atzerriko hitzetan, “k”ren balioa. “K”, “C” eta “Qu”ren banaketa ere bere gisa egiten du, eta abar.

Horiek hola, pentsatu genuen hobereena dena dagoen bezala ematea zela. Hizkuntzari buruz ikerketa egin nahi duenarentzat ere hobe da testuak, pixka bat zaharrak direnean, dauden-daudenean ematea.

Buru-hauste gehiago izan dugu “editio princeps” delakoan nabari diren huts eta dudazko testuekin. Orduko argitarapenean ere badira, noski, huts nabariak; beste batzutan ez dakizu ziur hutsak diren ala ez. Horiek ere guk errespetatu egin ditugu; baina Sarreran ipini dugu sail bat “Testuari buruz oharrak” deitzen dena, eta han espresuki ematen dugu horien zerrenda; horrela irakurleak badaki irakurketa horiek horrela datozela jatorrizko edizioan.

Irakurleari zor diodan lotsagatik ezin dut isilik utzi inprimerian egin didaten makurra. Behin idatzi zuen Mitxelenak: beti erratekin burrukan eta azkenean berek menderatzen zaituzte. Neri ere horrelako zerbait gertatu zait. Zoritzarrez, espresuki eta idazkiz esandakoari kasu egin gabe, garaia baino lehen inprentatu zuten liburua. Egia da bigarren frogak ikusiak zirela ordurako, baina honelako lan batean ez da aski izaten. Horregatik hutsak itzuri dira eta “Fe de Erratas” jartzea beste erremediorik ez da egon. Beharbada horrek badu alde on bat. Sarreran “editio princeps” delakoan ageri diren huts eta dudazko testuen zerrenda dator; liburuaren azken orrian, berriz, argitarapen honen hutsen zerrenda jarri da. Era hortara kasu jakin batean dudatarik irteteko bideak eskaintzen zaizkio irakurleari.

Liburuari Sarrera bat jarri zaido. Ez luzeegia, noski, baina bai, ene ustez, liburua, egilea etab. bere giroan eta garaian kokatzeko aski den bezain bestekoa. Liburuan datorren euskarari buruz ere ematen dira xehetasun batzuk, baina gaia alde guztiz agortzeko asmorik gabe. Izan ere sarrera hauek irakurleari gosea pizteko modukoak behar dute izan, ene ustez. Ikertu nahi duenari meatokia behar zaido eskaini. Hain zuzen, horretarako dira bilduma honetako argitarapenak.

Liburuaren azken aldean hiztegia jarri da, hots, liburuan ageri diren hitzen hiztegia; hau ere, segur-aski, ez da alde guztiz osoa, baina bai ugaria eta oparoa. Eta hemen aparteko modu batean Aita Pedro Aranguren eskerrak eman beharrean naiz, zeren hiztegi hori egiteko lehen fitxa-bilketa berak egin baitzidan.

Lavieuxvilleren katixima hau frantsesetik Lapurdiko euskarara itzuli zuena, uste denez, Grazian Harosteguy Sarako erretorea izan zen. Zoritxarrez, jaun honi buruz gauza guti dakigu. Apezpiku jaunak estimu handitan zuela, eta hola. Sarako beste erretore batek —Axular-ek— 90 urte lehenago *Gero* liburu famatua egina zuen. Bataren eta bestearen euskarak zertan diren berdintsuak eta zertan bestelakoak: horra aztergai bat nik ukitu ez dudana eta arakatu nahi duenarentzat gelditzen dena.

Azkenik, lanean lagundu didaten guztiei eskerrak. Batak Urquijo liburutegiko alea utziz, besteak lan hori serokopiatu eta makinatuz, besteak orijinala eta kopia erkatuz, besteak bibliografi laguntzak eskainiz, edo galderei erantzunez —hemen Lafitteren izena nahi dut bereziki aipatu— edo Parisetik frantsesezko katixima ttipiaren fotokopiak ekarriz, etab. Izan ditut, bai, laguntzaile onak. Denei ene ezagutza eta eskerrona.

Baina guzti hori alferrik izanen zen Mezenas bat egon ez balitz. Hori gabe liburua ez zen argitaratuko. Badakizue salmentak urriak eta inprimeri kostuak handiak izan ohi direla. Nor izan da Mezenas hori? Gasteizko Udala. Mila esker, bada, berari.

Eta besterik ez.